


Maitasuna politikoa da

Maitasunaren ideologiak geure buruak, geure harremanak eta geure etxe eta kaleak nola eraikitzen dituen



Jakin aldizkaria

Jasotze data: 2020-01-15
Onartze data: 2020-01-20

2017ko udan hasi zen Jakin Fundazioa Jakin Jardunaldiak antolatzen, Udako Euskal Unibertsitatearekin eta Usurbilgo Udalarekin lankidetzan. 2019ko Jakin Jardunaldiaren gaia hauxe izan da: «Maitasuna politikoa da». Gai benetan zabal horren zehaztapena azpigituluak xehatzen digu: maitasunaren ideologiak geure buruak, geure harremanak eta geure etxe eta kaleak nola eraikitzen dituen.

Izan ere, feminismoaren eta genero-ikerketen ekarpen garrantzitsuetako bat izan da gure kulturaren eta gizartearen tradizionalki bereizita aztertu izan diren esparru pribatua eta publikoa elkarri lotuta eta elkar eragiten begiztatzekoa. Ildo horretatik, maitasuna ere, alor pribatu hutsari lotutako giza sen, joera, sentimendu edo emozioztat jotzetik, ideologia eratzailerik eta hertsatzaile indartsu gisa ikustera pasatuko ginateke: ideologia horrek maitasun erromantikoaren forma hartzen du Mendebaldeko gizarte honetan, eta lehenagotik datorren amatasunaren maitasunaren ideologiarekin estuki ezkontzen da. Ideologia horretan eta horrekin sozializatzen eta generizatzen gara, eta emakume eta gizon eraiki, menderakuntza eta indarkeria askorekin eraiki ere.

Gaiari sarrera emateko, maitasunaren ideologiaren mami eta funtsaren inguruko bi ekarpen egon ziren Jardunaldian. Lorea Agirre Dorronsoro kazetari eta Jakineko zuzendariak egungo maitasunaren ideologiaren oinarriak zedarritu zituen, beste maitasun-eredu bat posible dela ondorioztatuz iristeko: zaintza erdigunean izango duen maitasuna. Mari Luz Esteban antropologoak, bere aldetik, maitasunaren ideologiaren irakurketa kritiko baterako dekalogo gaurkotu bat eskaini zigun.

Baina Jardunaldiaren azpigituluak iradokitzen duen bezala, maitasunaren ideologiaren inguruko bigarren galdera honi erantzuteko saiakerak izan zuen pisu nagusia Jardunaldian: sortu ditugun hirigintza, etxe, kale eta plazen oinarrian zer eragin duen maitasunaren ideologiak sortzen dituen harremanak izateko moduak, eta eraikuntza aldatuko bagenu ea harremanak izateko (maitatzeko) modu askatzaileagoa sor genezakeen.

Oihane Ruiz Menendez arkitektoak, hasteko, maitasunaren ideologiaren eta hirigintzaren arteko harremana xehatu zuen, zaintzari eta giza harremanei erreparatuko dien arkitektura eta tresna berriak behar direla defendatuz.

Ula Iruretagoiena Busturia arkitektoak ere maitasunaren ideologiaren eta gure etxe eta kaleen arkitekturaren arteko harremanari erreparatu zion: gizartearen bizimoduari forma emateko erabakietan arkitektura inplikaturik dagoenez, arkitektura egitea politika egitea dela baieztatu daiteke zalantzarik gabe haren iritziz.

Leire Milikua Larramendi arkitektoak, Bartzelonako CCCBn antolatutako *1.000 m² desira*. Arkitektura eta sexualitatea erakusketaren gako nagusietatik abiatuta, arkitekturak eta sexualitateak historikoki izan duten harremanaz hitz egin zuen.

Jone Arrazola Maiztegi gizarte eta kultur antropologoak, XX. mendeko merkataritzaren etnografia feminista bat eskaintzeko, Oñatiko merkataritza txikia aztertu zuen. Izan ere, haren ustez, gertuko merkataritza ahalduetzeko espazioa izan da emakumeentzat; esan daiteke dendetan emakumeek identitate propioa zein kolektiboa gorputzu dutela.

Kasu praktiko konkretuagoetatik abiatuta, espazio publikoaren kudeaketari lotutako hainbat esperientzia ere aurkeztu ziren Jardunaldian.

Batetik, Nora Salbotx Alegria eskola txikiko maistrak, Baztango Herri Hezitzaileak esperientzian oinarrituta, haurrak subjektu politiko gisa hartzea proposatu zuen.

Jone Miner Aginaga arkitektoak, bestalde, Usurbilen azken urteetan garatu diren hainbat plan eta proiektu laburtu zituen, industrializazio-garaitik datorkigun hirigintzak eragindako erabileren segregazioa salatuz eta espazio publikoaren funtzioen berreskurapena eta hirigintza ekologikoaren baliagarritasuna aldarrikatuz, besteak beste.

Azkenik, Donostiako Abaraska Etxebizitza Kooperatiboak bere proiektuaren ildo nagusiak aletu zituen, elkarbizitza, publiko/pribatuaren ulerkera, zaintza nahiz harremanak izateko ereduak eztabaidara ekarriz.

Jardunaldian eskainitako hitzaldi guztien bilduma argitaratu zen Jakin aldizkariaren 233-234. zenbaki bikoitzean (2019ko uztaila-urria), Zaloa Basabe Gutierrez eta Irati Mogollon Garcianen artikulua banarekin osatuta. Usurbilgo hitzaldien bideoak ere ikus daitezke Jakin.eus webgunean (www.jakin.eus/bideoak/2019-maitasuna-politiko-da/23).
